# Neguko ongarri berdeak

### *Zer da ongarri berdea?*

Lursail bat erein, laborea partzialki garatzen utzi eta unerik egokienean, moztu eta lurrera gehitzeari deitzen diogu. Lur bakoitzaren ezaugarriaren eta sasoi bakoitzaren arabera, labore mota bat edo beste erabiliko da. Antzina praktika hau erabiltzen zen, batez ere, lekadunekin.

### *Ongarri berdearen funtzioak*

- Lurra muturreko tenperaturetatik eta higaduratik babesten du estalki bat sortzen duelako. Era honetan, zelaietan modu naturalean gertatzen dena errepikatzen dugu. Izan ere, neguan goldatzeak lurra kaltetzen du.

- Jarduera biologikoa mantenduz lurra aberasten du eta lekadunen kasuan, aireko nitrogenoa lurrean finkatzen du bakteria baten sinbiosiari esker.

- Laborantzaren ondoren, lurra aberasten du gehitzen dugun materia organikoa baita.

- Basabelarren lehiakidea denez, hauen presentzia murrizten laguntzen du, batez ere dentsitate handiko ereintza bat baldin bada eta zekalea nahasten baldin badugu.

- Lurraren egitura hobetzen du; izan ere, zekalearen kasuan, metro eta erdira arteko sustraiek lurrotzak apurtzen baitituzte.

### *Gehien erabiltzen diren landareak*

Lekadunak izan ohi dira (ilarra, hirusta, babak...) lurrean nitrogenoa finkatzen baitute, baina, aldi berean, kruzifero edo gurutzedunak baliagarriak izan daitezke (errefaua, arbia...) eta baita gramineo edo lastodunak (oloa, ray-grass, zerealak...).

### *Ereite sasoia*

Urria eta urtarrila bitartean ereiten da; laborantza produktibo batek baino alde handiagoa ematen digu; izan ere, hastea edo begetatzea da interesatzen zaiguna, ez fruitua ematea, eta hori udaberrian gertatzen da.

### *Ereintza metodoa*

Motoaitzur edo aitzurrarekin ereintza-ohantzea prestatu ondoren, purraka eta eskukadaka erein behar da: nahasketa egin eta ontzian jarri ondoren, zuzen ibili eta eskukada uniformeak jaurti behar dira aurreraka eta zirkuluerditan. Azalera osoa ereiteko, pasillo paralelotan banatuko dugu lursaila.

### *Ebakitzeko garaia*

Martxoko erdialdetik irailaren erdialdera ebakiko dugu. Zenbat eta berdeago moztu, lehenago bihurtuko da elikagai ondoren etorriko diren laboreentzat, baina lurrean ez du denbora luzean iraungo. Aldiz, buruxka sortu arte eta kolore berdea galdu arte itxaroten badugu, materia organiko egonkorragoa gehitzen ariko gara, hots, elikagaiak modu mailakatuagoan zabalduko dira. Moztu ondoren lur gainean uzte da, lehor dadin.

*Lurperatze lana*

12-15 egun iragan ondoren rotabatorea edo aitzurraren bitartez, lehortutako landareak ahal den heinean birrindu eta lurrarekin nahastu behar dira. Udako landareak erein edo landatu baino lehen  beste lan arin bat egitea komeni da lurra goxo-goxoa geratu dadin.

## Abono verde de invierno

### *¿Qué es?*

Consiste en sembrar un terreno, dejar que se desarrolle parcialmente el cultivo y en el momento ideal, incorporarlo a la tierra previa siega. Para cada suelo, dependiendo de sus necesidades, se usarán unos cultivos u otros, en una época u otra. Es una práctica que antiguamente se realizaba a base de leguminosas.

### *Funciones de este abono verde*

- Protege el suelo de temperaturas extremas y de la erosión, porque forma una cubierta, tal y como se produce en los campos de forma natural. De hecho, labrar en invierno, daña al suelo.
- Enriquece el suelo, ya que al incorporar el cultivo al suelo, le añadimos materia orgánica.
- El abono verde compite con las hierbas silvestres de la parcela, evitando su proliferación, sobre todo si la densidad de siembra es muy alta y usamos centeno en la mezcla.
- Mejora la estructura del suelo; de hecho, en el caso del centeno, sus raíces pueden alcanzar hasta un metro y medio de profundidad, rompiendo la suela de labor.

### *Plantas más utilizadas*

Plantas de la familia de las leguminosas (guisantes, trébol, habas,...) ya que enriquecen el suelo con nitrógeno, pero pueden ser útiles asimismo las crucíferas (rábano, nabo,...) y las gramíneas (avena, ray-grass, cereales,...).

### *Fecha de siembra*

Entre octubre y enero; hay mucho más margen que si fuera un cultivo productivo, ya que nuestro objetivo es que vegete, no que fructifique, y esto lo hace en primavera.

### *Método de siembra*

Tras preparar el lecho de siembra con motoazada o azada, se siembra a voleo a puñados: se puede meter en un cubo la mezcla preparada de semillas y a medida que se avanza en línea recta, se echarán puñados uniformes hacia delante y en semicírculo. Sembraremos toda la superficie dividiéndola en pasillos paralelos.

### *Fecha de siega*

Se siega de mediados de marzo a mediados de abril. Cuanto más verde esté, antes se transformará en alimento para los cultivos que vengan después, pero tendrá un efecto menos permanente. Por el contrario, si segamos el abono verde una vez que haya espigado y perdido su color verde, aportará una materia orgánica más estable al suelo, es decir, irá liberando nutrientes más escalonadamente.

### *Enterramiento*

Tras 12-15 días, se desmenuzan las plantas ya secas, con la ayuda de una motoazada o a mano, mediante azada, y se mezclan con el suelo. Antes de sembrar o plantar los cultivos de verano conviene realizar una labor ligera para que el terreno quede bien suelto.